Satorrak

Andoni Tolosa

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1990 Andoni Tolosa
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1990eko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Igaro al da mendea?
beste hainbat paper
ernai
ziriborratu
ezin jabetu non ezkutatzen diren
bihotzeko sator itsuak
Aski al da saiatzea?
amodioak aipatzea?
espaloian ikusi haut
betiko moduan
eta zulo bat eskatu zionat etorkizunari
sua zerienan orduan ere
hormei
arimak kiskaliz
barrikadetan
Satorrak ezkutatu egiten ditun
trumoia datorrenean
satorrek zerurik ezean
abestiren bat dinate
gaizki ordaindutako memorian
Galeria batetik bestera doan eguzkia bezala

zer gertatuko ote da?
ihesak asmatzean
zer gertatuko ote da?
geu ere satorrak garela
jabetzean

Hitzetan bada ere
kontatzea zilegi
hegoaizeak eraginda
kantuetan ezik
zilarreztatuko dut
infernuko zenbait zubi
eskaintzarik hoberen
zortziko txiki madarikatuaren
ihesaren higuin
atsedenik hartu gabe
botako dut
sorbalden izuen hainbat berri
hizketan bada ere
ulertzea zilegi
nire aitaren hotzikarak
marraztuko ditut
aintzina ezinen irri

ZULOAK

Hiri ilunaren oroimena:
arratsaren ezpain gorrietan
harramaskaka
gizon galduaren pauso sekretuak
eta ez dago fluoreszenteen artean
bizitzeko astirik
ez bait dauka ibiltzea baizik
misterioan nabigatuz
hiria ere itsasoa bezain harro
taxien argi berdeak diztiran
begiak dira
uretan galduak dabiltzan itsasontziak
txalupa bakartiak
eta gizona
igerian ausartu den bakarra

Buztinezko birigarroek
biriketan
biltzen dizkinate
diamantearen etorbidearen lejendak
hiriaren memoriak
autoen hegalaldi erratuak
edo esku ohituen laztanak
mokoa bete euri
bihurgunetan itxaroten dinate
zerraldo baten berri
sirenak dantzan bitartean
takoi hautsien aieneak
jasotzen dizkinate
garraldi muttuetan
esne artean
hamaika aldiz irekitako bularrean

Gau gosetia haustear farola itzalien haurtzaroan
desioa deituriko tranbia berandu zetorrelarik
pausoetan bildutako itzalak norma janez mintzo
ziren
nahiz eta kaioek beren burua hil nahi ez
gauza handirik ez zegoenez bilusteko
gizonak musean ari ziren zakurrekin
emakumeak trenbideetan etzan bizkaia maite
abesten
kolonia usaina kable odoleztatuetan
poliziak kaniketan ari ziren beren patroia zela eta
han
hantxe bertan
maitemindu ninduan hirekin
erlojuak erori eta guztia lohitu baino lehen
besteak bezala tranbia itxaroten nengoelarik

Haruntzago sirenak daude
eta beltzak paseatzen
paseatzen besterik ez
haruntzago ibai ustelak daude
zuloetan irristatzen diren dragoiak
dragoietan bilusten diren gogoak
eta gogoetan odolusten den eguna
haruntzago erraldoiak bizi dira
etxe errealdoiak
gose erraldoia
doinu erraldoien traizioetan
lokartuak
haruntzago begiak daude
hemen bezalaxe
haruntzago pausoak daude
hemen bezalaxe
korrikarako ahaleginak
hemen bezalaxe

Hiriaren maindire loredunak
prostituta zaharren estalpe
bitxi faltsoen kabietan
lorategi urreztatuak erre
ibaiaren promesa dute zubiek igaro
etengabe ezin lokartu harresien jabe
eta bi dantzari isil
aintzinako saloietan
denbora herdoildu al den galde
eta hiriaren erritmoan
bi egun jaio
bi gau irentsi abaniko zulatuek
bi hortzetan eten
danbor ajatuek hotsegindako
hainbat isiltasun heze
hiri zatituaren orbaizeak
dendatzeko neskatxa ubelduak
itotakoen zokoan malko eske

Ate bat eta beste ate bat
oihalarena zure belaunetatik iristatzerakoan
zu adina bilustutako eguna ikusi ahal
furgoi zaharraren soinuak eztulka
eta abesti xume bat
orrietan pausatutako hitza baino arinago
orratzen doinua
entzun eztarri herdoilduaren kantua
ahantzi gorputz idorrean
karreterak loratzeke
bular ikustezinetan astindu beroa
dantza bietan bait dira mugak ergel
batean gosearen ekaitza
bestean musikoaren promesa
guztietan pobreziaren ihintza
kale gorria

ATERPEAK

ISA

Lurra bilusten denean
haizea baino ez dun geratzen
inongo bidaiari izatea
bidaiari soilik
bela
hire ausardia miresten dinat
oihanak begiak itxi
eta zaratarik gabe
hire hegalean oheratzen delako
itsasoa miresten dinat
hamaika aldiz jarri dituelako
bere haserraldiak hire oinetara
gauzak agortzen direnean
bidea baino ez dun geratzen
inongo bidaiari izatea
bidaiari soilik
zaldi
marinel
hi

TINTINEN AITORMENA

Hiri idazten dinat
deserturik gabeko leiho honen tristuran
irudikatzen haut eta
urteak bait dira bakarrik nagoela
mozkorrak ezin iraun betirako
hiri idazten dinat
jakin bazekinat eta
hire iztarren artean ez nintzatekeela arrotz
berdin zion
hire bazterren truke galtzen badinat
hilezkortasuna
heriotza agertzen badun
itxaroteko esango zionat
hire besoetan nagoela

PABLITO

Desioek gosea ahultzen dutenean
hesien gainetik hegan
berriro aurkitzen dizkiat
oihanen oihartzunak
beldurraren armiarmek loa zirikatzen diate
harietatik zintzilik bezala
eta abestu egiten diagu zoritxarrean ezik
besteetan ere
goizero bezala gauero bezala
irakatsitakoak bota
baloia hormetan saltoka
«jesusito de mi vida»
binetetan idazten diagu bizitza
binetetan ezkutatuz zoria
lapur ez diezaguten
eskutik hartuta binetetatik zetorkiguk
magia
elkarri lotuta
misterioa eta zirrara
ahaztura
«jesusito de mi vida»

fermin anaia neure tebeoak
erretzen ari duk atarian
nik negar egin diat
hik ere bai

CUSH

Palmera baten itzalean aurkitu dugu goizean
putreek esana zen
fusil bat harean xut zegoela
eta fusilaren alboan gizon bat
beltza
begirada beltza
ikutu bezain laister
ihes egin digu bere arimak
eta ekaitzak hautsi du hamaika pusketan
horregatik ez dakargu gurekin teniente jauna

Orduen zalantza argitu denean
nonbait ezkutatuta zeukan basamortuak
errebelatuaren gorputza
gerlariaren odola
horregatik ez dakargu gurekin teniente jauna

DOÑA URRACA

Hegan doala dirudi
sutan bildua
ekaitzetan untziratua
alboetan utzitako zoritxarra
landatuz
asetasunaren erroetan
ankerra da bai
gehiegi ezagutzen dena
zarpailak zorionaren bila
dabiltzanak
sugeen antzera
oihartzunka eguzkiari
zaunkaka argiari
hor doa
eta hegan doala dirudi

RASPUTIN

Eta ez balitz egia infernurik badagoena?
erromantizismo hutsala ezergatik hiltzea?
eskuzabaltasun handiena berau
hiltzera kondenaturik zinateke
asasinatzeko arrazoi bita dabilen garai honetan

DIETER LUNPEN

Hegoalderen hortzetan omen zegok sekretua
ipar horratzen erokeria zai
Carlos Gardelek volver abesten zian
beste eritzi bat baino ez duk
aintzina
gauzak beste erabatekoak zirenean agian
hik erabakia daukak ez da?
berdin ibiliko ditut beste arrastoak
berdin altxorrik badagoelakoan
hire kontua duk

RAN XEROX

Zerraldoen eztia
odola
metro honen beroan
bizitza bideoklip ero bat dun
eta azkar bizi beharra zegon
fokoak itzali baino lehen
maite haut lubna
mane haut
metalari darion suarekin
herdoildura honen ertzetan
zintzilik
lubna non zegon New York

HARZACK, HARZACH
HARZAC, HARZAK

Hire neurriko mundurik ezean
imaginatu dituk
ejerzito amaigabeen guda zentzugabeak
emakume baten diti loratuberrietara
iristen den txori erraldoiaren agonia
ezagutu dituk
irudimenaren ateek izkutatzen dizkiguten
odol guztiak
gose guztiak
nazka eta gorrotoaen trenbide guztiak
ezagupenaren kamusadak
damuaren preziorik galdetu gabe ere
harritu gabe galdu duk oroimena
eta ez haiz bihurtu haizena baino
paperezko mugetan mugalari
usain okreen biltzaile

RASTAPOPULOS (KARTZELAN)

Adiskide oraingoan harrapatu naute
eta horma hauei darien harea ezin estali nabilek
esmeralda koloreko metalek ezin asetu
begiratzen diat
nondik ez ote ihesa posible
eternitatea bait zeukeat zai kanpoan
muzin egiten zidak noizbehinka
adiskide
hori baino kondena latzagorik ezagutzen al duk

XAKOMA

Eremuko mugetan izpiak aspertzen omen
beso lehor batek izkiratutakoa dun
lurrezko idi horiek daramaten golde
urreztatua
arrastaka hurbilduko ditun higana
suge zoratu bihurtuko bait dira orduan
gizonak
ezen hire bakardadea lerro bat
urez idatzia egarriaren astian
gosez margotua ohearen hautsean
kristalezko sagu bihurtuko bait dira orduan
gizonak
hire bularretan ezkutatu nahi
hezetasun diztiratsuaren alde jo
behin
berriro
eta ezin
haragi iheskor bihurtuko bait dira orduan
gizonak

NESTOR BURMA

Kale batetan jaiotzen duk hurrengoa
enparantzetara itzultzen goizero hasperena
zigarro hautsetan garbitzera
esnatzen ohitutako aurpegia
jarraitzea ez duk erantzutea baino
ahuldadeak bakartzen ez duena
leporaino bustita izotzak umildua
gaueroko narraztiek itxaroten ditek
zaunkaz betetako autobusa
egunaren dei mindua
paseoan ibilitakoak balira oihartzun horiek
ijito gazte baten odolaren aieneak bezala
ihes egingo lukete labana anitz sorbaldan
karreteran barrena karreteran saltoka
ero guztien atzetik ero guztien musikan

ARGI ITSUAK

Begi ahituetan bakarrik nagusitzen da
egun argia
itsuak garenan
ezin bait da gorputzik saldu
gauez ez bada
ezin bait dugu besteen orratzetan zikindu
gauez ez bada
ziztada ilunenetan ezik
ez bait dugu
hamairu urteko haur bilutsiekin
amestu nahi
beste norbaiten izerdiak
larrua kiskaltzen digunean
nola antzeman
ezezagun baten mehatxurik
gauez ez bada

Ez omen dik mendeak lekukorik behar
nahiago dik bonbilen isiltasuna
horregatik omen gaudek hiltzera kondenaturik
argizarizko tximeleten antzera
kristalezko laberintoetan igarotzera
gure egun bakarra eta
estoldetan erori baino lehen eguzkitan urtzera
argizarizko tximeleten antzera
ederregiak omen ginen
hegaletan otoi egiteko
harroegiak
tximeleta ezinduen antzera

Kitarra batek
tom waitsen ahotsa
lapurtuko balu
eta bere akordeetan
euririk ez dagoen lekura eraman
pianoak eta akordeoiak
aspaldidanik mutu dirauten mundura
galdera da
guztiok inozenteak bagina
kale zakur gosetienak ere
klake dantzatuko balu
bere gosea aseturik
ez balego zergatik
zikinkeria artean paseatu beharrik
galdera da
ahots garratz baino lagunik
ez balego
gure alde beltza gogoratuko ligukeenik
zeinarekin
gau bakartietan bat egin
galdera da

ez balego galtzailerik?

ez balego pasiorik?

ez balego lekurik non nekea pausatu ahal?

Zergatik ote hago hor zelatan
azpiko hori astindu nahi ala?
garitzan ez zegok ikustekorik asko
neskatxoen iztarrak ez badira
baina hi beti hago hor
astakirtena!
jexuxuen alaba gaztea izango duk
ilea luze eta ibiltzerakoan
kale osoa berotzen duen urdanga hori
nere alaba balitz
aspaldi nizkion kenduak ohitura horiek
arriskutsua bait duk gizona berotzea
susto ederra hartuko dik egunen batean
babu alena!
hirekin ez zegok inora joaterik
jarraitu ezak hor nahi baduk
idiarena egiten
ea behingoz nazkatzen haizen

Gaur ez zeukeagu sapairik non babestu
eta hotza zetorrek
urrutitik nabaritzen zioat
gorputz jelatuen bizkarezurrez eginiko mantua
eta gosez zetorrek
lautada idorretan loratutako izotza
ahoan
hurbiltzean argalegi gaudela esango zioagu
eta agian ahaztuko gaitu
badakik
sumendi baten arima izatea gustatuko zitzaidakean
aurre egiteko
hala bihurtuko bait niake
garaitu ondoren
hotzaren hatsa janari
eta marrubi tarta egingo geniake bere begiez
bere hatzak oilasko erre
baina zoritxarrez gaur ez zeukeagu
erregua baino
loak lagun onar gaitzala bere maindiretan

Nortzu izan ziren
fatuaren jakitun ez
eta
goiz hartan
kale euritsuak
pauso beroz
igaro zituzten
gazteak
guda ere
bizitzaren pauso
zoriontsuren bat
antza
nekatuta bueltatu ziren
iladan errenkan
heriotzak begi aurrean
eztanda egiten duenean
uzten dituen
arrastoekin
gutxi bueltatu ziren
eta inork ez zekien
nortzu ziren

ez ta ere
nortzu geratu ziren
lur hautsian
betirako husturik
    hilik

Krak-krak
irabazleen altzairuzko zakilak
argizarizko lurretik
bide dira irten
ahaztu ez dezagun jada guda bat galdu genuela
bang
puto vasco
krak-krak
besoak altxata eraman gintuztela
inperioren marmolezko ibilbideetan urkatu
hainbat aldiz
bang
puto vasco
krak-krak
ahaztu ez dezagun haien izena
haien hats ustela
bang
krak-krak
haien metraila
bang
izua

krak-krak
isildu gaitezen betirako
bang
zein oker dabiltzan!

Garai tentela
ispiluz jositakoa iltzatutakoa
garai lehorra
iturririk behar ez duena
garai antzua
begiak estaltzen dituena
garai faltsua
hegan ez dakiena
Hi ikusiz gero ba ziaten
nire ametsek nonbait kabi
Garai gezurtia oparotasunez jantzitakoa
garai miserablea
preziorik baduena
Nire ondoan bahengo
erakutsiko ninake
zenbait hortzetan hainbat lorategi

LARRUARENAK

Gariaren ferekan minutu bat baino ez
hire begien kulunkan
segundu bat baino ez
hire ezpainen oihaletan kontuetan
medusek abestu dinate gaur ere
zubipean
hire izena margotuz
zabalduz
satorren amorruaren gain
beste maindire garden baten faltan
hire begietatik at

Gaua da
taberna putzu
beroa eta kea
mamu
eta amodio ezinen
gaua
etsipena urrutiratu
nahian
alkoholak gorputzak
erretzen
kaleak aldatuz
mudatuz
rock and rollak
bart arratsa ametsa ez zela dioen bitartean
gaua da
trikitixa hautsiak
azken doinua eman dio
egunari
eta zurrunbiloa
jabetu da azkenik
gure gorputzez

Non dago ilargia galdetu zenidan
harriturik ispiluak irensten zintuenean
ez bait dago ziutate bat besterik
zeinean pentsatu
erantzun nizun memetu berean
ez nuen ezer erortzen zenik nabari
ohitura izango zen
baina konturatu ahala
hankaz gora jarria
minutuak zure gorpua igaro
eta kaleruntz amiltzen ziren
ezezaguna gertatzen zitzaigun
kodigo izkutu batez
zauriz bete zitzaigun gela
eta zeharo harriturik
oihu egin nuenerako
guztia bere onera bueltatu zen
amets bat bait zen
mementuan igaro zitzaiguna

Horbelean igeri oinen zarata pagoen hegalazpian
bi antzar galdu hegoaldetik urruti
hitzegin al genuen amodioaz?
arraun okreak hodei geldoetatik eskegi
ezkutatu al hintunan oinak?
lurraren josturetan irristatuz uraren eskeletoa
bidea makurtuz pausoen izerdian
hire arrastoaren bila?
urteetan neurtu al dun muxu eza?
gerri zinbela maldan behera
hostoek eta hautsek bilakatu izuti
ez diren zelaietan hire arrastoaren bila
aurkitu al hunan nahi hunana?
horbelean igeri eskuak atzera jo
eta ezin hatzeman hostoak baino
lehen ez nekinan orain bai berriz
antzar bat hi bestea ni
aurkitu al dun hegoaldea?

Bakarrik oheratu ez banintz ere
euria egiten jarraituko zukeen
beraz berdin dio
trikitrixak ez bait dira zutaz kexu
mementu honen edozein odutan
beraz berdin dio

hala ere
gaua ez zatekeen gutxiago izerdituko
eta motorrak jo ta ke ari dira
ibaiaren bestaldean
beraz berdin dio
zure izena ahaztu bazaio
nire oparia galdu baduzu soineko beltzaren
enkajeetan

leihopeak lo daudenez eta jendea begira
berdin dio
kitarra batek esango zukeena
mozkorra igaro ondoen zutaz akordatzea
beraz berdin dio

Oker genbiltzala edo
karramarroen ikatzezko begiak
jasotzeari ekin genion
zaharregiak ginelakoan
argia irristatzen zitzaigun behatz artetik
gaizki ondutakoari pausoak biderkatzen genizkion
pauso gehiago
horregatik atea itxi
igeri egin
urrutiratu
bat izan zen
agoniarik gabeko haize boladetan
galtzea bezala
horregatik
oker genbiltzala edo
zatiturik antzeman zintudan
leiho horretan begiratu nuen
azken aldian

Berak badaki zergatik
iluntzeak lokartzen duen
nire gauzen artean
laztan isiletan
badaki zergatik
bere gorputzaren irudia
zabaltzen den etengabe
oroimenen gainetik
eta zergatik bere ortze estuan
izar fluoreszenteak
faltsuak izan arren
sekretuen
gordailu fidelak diren

Beroa sentitu genuen azken aldian
otu ere
oroimenean genituen labezomorroak
batzea
mariagora zekenenak utzitako petroleoan
begiak lausotzea
amorruak zenbatzea
bat bi hiru lau
otu ere
armarioetan erreparatzea
bat bi hiru lau
belaunak apurtu zizkiguten
eta besoak urratu
inoiz imajinatu baino plazer gehiagotan
otu ere
zor zizkiguten oinaze guztiak esnatzea
bat bi hiru lau

LABERINTOAK

Zintzelkatutako zezen bustien
ezinean
ibilia
harrizko metroen
betekadetan
iaioa
eztarri guztien
odoletan
berotua
trebea izango haiz beti
ihesean
ezkutaketan

Gasolindegietako izarrak zirela ederrenak
ez zegoela ezer gauaz haruntzago
ez geniola inori bizitza baino zor
eta bideak irentsi egin gintuen
zein duk karreteren arteko aldea?
zaurietatik ahazturara saltoka ibiltzea?

Paradisuak irudikatu aho nazkatuen hatsan
kafesne bero baten promesak lehortu
mahai zikinen egunbarra
manikiekin zabortegietan lokartuz
urrezko kupuladun hiriarekin amestu genian
isilik
hotzak esnatzen gintuen artean

Ibilian ibiliz errotu gintuan lanboran
kotxe hodien lanbro ozenean
ibilian ibiliz erre genizkian egunak
ibilian ibiliz
ahaztu zaiguk zer den itzultzea

Ihes egiterakoan
ez dira inoiz pausoak neurtzen
ez da jakiten nora jo
sekretoak patriketan sartu —asko ez badira—
eta norabaiteko bidean galtzen gara
aztarnarik gabe utziz
atzean geratu zaiguna
inork jarraitu ez gaitzan
—inork ez itxaroteko hurrengo geltokian—
ezer esan gabe joaten garenean
gutxienekoa da
muxu bat eguzkitan lehortzea
edo bilutsik imaginatzea kaleetan zehar
ez bait da pentsatzen
norbait minez utzi duguna
gure uhararen mugetan

Etsaiak asmatu burutapenen harian
beste baten simulakroa
baino ez
tintan
lehorteetan higitzearen ohitura
ateen beharra
orain adibidez
izan beharrekoa urruti
grisez izana
grisez ahaztura
etorkizun itsua datorkiguna
oroitu basatiak ginenekoak

Ba al dago gela ilun gehiago
hiri honetatik kanpo?
ba al dago kantoi gehiago?
arnasa hartzeko astirik?
gogoratu ezean
orduetan sinesteko aukerarik?
presaka lagun izandako bati
materiala eskatzerik?
berriro sentitu duk
ihes egiteko gogoa
ba al dago karreterarik orain
hiri honetatik kanpo?

Gasolinaren mamuekin eztabaidan
korritzearen dialektikaz
otsaila hurbilegi bait zegok
maletaz estalitako arrainak urrutian
karretera alboetan aurkitu hilotzei
abestu genizkien balada zaharrak bildu
gurpiletan ito zitzaigun astia
noiz bazkaldu genian azkenekoz itxaropenarekin?
soro iluna duk aurkitu genian
hegaztia
gelditu ginenean zalaparta huen
hasieraren mehatxua
gelditu ginenean
orduan hasi huen ihesa

Bueltatu zara mugek nora ezean
berriro ekarri zaituzte sorterrira
herbestetik oin erreak eta deserriko zenbait
kilometro
besterik bai?
utzi al duzu han
usain gozoz jantzitako neskatilarik?
loa arantzez landatuko dizun
mamu ikustezinik
edo
oinutsik bueltatu zara
leihoen isiltasunari
aintzinako lagunei aurre egiteko prest
ez ote da ba ihes amaigabearen
pausalekua baino izango
neoiez apaindutako hiri hau
besterik bai?

Itzuliko da zioen
ispilu ondoan eseritako agureak
hitz laburrez
arratseko itzalak
mintzo eta
erreginaren zeldetan
preso zegoela esan arren
tinko
itzuliko da errepikatuz
ahots irmoz
itxaropena gezi odoltsua
gorpu zaharrean gorde nahian
hitz laburrez
alizia itzuliko da!
izen magikoaz
ispiluaren misterioa apurtu asmoz
baina egunak joan eta etorri
agurea agureagoa
lewis carroll gizarajoak
neskatoaren izena
bihotz zaharkituaren bazterretan

gordetzen zuen
ezti putzu baten antzera
patuaren sareetan ainguraturik

HURRENGO AINTZIRAK

Abesti bat zegon hiretzat hor
non lekurik badagoen
balada baten keinuak izana barneratuz
izatera bultzatzen gaitu
egotera
eustera
eta erdibiderik gabeko errutan
dakusagu beste baten ezinean
dabilen zoriona
dabilen dantza
oinak arin
begiak bizi
udaberri baten zai gauden gu ere
eta hain luzarorako dinagu lana
ikusteak ez duela balio
goazeman goldatzera
goazeman
goazeman